



ZAMALBIDE

Sarritan, etxe barnean gaudenean, leioa ireki bearra nabaitzen dugu arnas berri eta osasuntsua eldu dakidigun. Errenderiarrontzat, Zamalbide gure atsedean, poz, itxaropen eta arnas osasungarria dela esan genezake. Izan ere, garai batean belardi zabal, atsedean-toki genituen lekuak etxez eta jendetzaz bete zaizkigu. Errenderiko kalean gero eta pillatuago bizi gerala dirudi. Egunero gure gainean sumatzen dugun ke zikin, kiratsdun, osasunaren galgarriak alde batera utzita, ordu batzuetan bederik, edari bizigarria xurgatzen duenaren antzera, gu ere aize garbi hori gureganatu nai dugu, poliki ordea, amaitu ez dedin...

Errenderi ederki asko aldatu zaigu azken berrogei-tamar urte auetan. Lehen, olloak bere egapean txitak biltzen dituen antzera, bildurik geneuzkan etxe eta lantegiak Eliz Nagusiaren inguruan... Orain, ordea, besterik da, alabearrez itxurez, eta izaten ere bai nik uste, antzaldatu zaigu. Askoz illunagoa da aurrez aurre dakusgun aurpegia. Eta gure Zamalbide ere aldatuko zaigu urte gutxi barru. Nolakoa izango ote geroagoko Zamalbide? Gure irudimenari leku emanaz gauz politak asma genitzake, baña ez dut, gaurkoz, orrelako asmorik. Gaurko, egungo egoerak damaigu buruausterik neikoa...

Udaberrian, austengoak ez dakit orrelako izenik, merezi duenik, gure mendietako zugaitz, belardi, soroetako barazkiak, orlegiz jazten zaizkigu. Nekazari lana, izadiarekiko aremanetan, txoritxoan abesti gozoa entzunaz, kiratsik gabeko giroan, askatasunean, ordu batzuetara erabat lotu gabe jarduteak... oso atsegiña bear duela dirudi. Egia, oso bestelakoa da nunbait.

Zatoz unetxo batean, irudimenaren eragiñez, eta etxe zahar batekin aurkitzen gera aurrez aurre. Baserria dugu, urteetan zear gaurdaño zutik iraun duen baserria, euskeraren kabia... Bere atea itxita dago, leioak bizirik gabeko begiak dirudite, ezta bizi azterrenik ere sumatzen. Zer gertatzen da? Baserria, guztiok miresten eta maitatzen dugun baserria utsa dago. Inguruko puskek salduz geroz kaleratu zaizkigu gure nekazariak...

Ai eneka astea ez da neikoa. Baserria jo duen gaitza ezagutu ondoren, berriro osasun indartsua el dakidion saiatu bear dugu. Dakigunez, maiorzako

askok mutil zar jarraitzen dute lanaren murrontzapean bizitzeko neskatillarik prest ez dagoelako. Bestalde nekazariak ez du bear ainbateko laguntzarik aurkitu. Itz onak entzun ditu sarritan, sarriegitan esango genduke, bañan, laguntzallerik ez.

Industriaren eragiña gero eta aundiagoa dugu eta Zamalbideruntz laisterka eldu zaigu. Zer egin?

Lehengoari begiratzea ondo baino obeto ba dago ere, gaurko aurpegi eman bear diogu. Eta, egia esan, ez genduke baste auzo eta barrioetan gertatua Zamalbiden berriturik ikusi nai. Negoziadunek bere etorkizunari begiratzen die geienbat, bakoitzak bere opilari su damaio. Orregatik, errenderiarrak ibil gaiten erne. Arren gauzak ondo egin ditezela eskatzen. Nediugu agintarieri. Nekazarien onari, eta erriaren etorkizunari begira dezaietela. Bizi giro berriak ez dezala bertakorik ito erazi. Orain artean bezela eutsi dezaietela gure izkuntza eta euskal giro jatorrari, aurrerantzean, lehengoan arrastoari jarraituz, bertsolari gazte eta bikainak sortuko diren itxaropenik galdu ez dezagun.

Gazteria aipatu dugunez geroz, gure itxaropen osoa eurengan ipintzen dugula adierazi nai nieke. Gazteriak berekin du indarra, bizi naia, gogo itxaropentsua... Zamalbideko gazteriarri gure zorionik beroenak eman nai genizkieke lerro auen bitartez. Eta naizta giroak zenbaitetad lagundu ez, ereindako aziak frutua emango duen uste osoan lanean jarrai bezate, gure asaben urratsak jarraituz eta era berean ere bide berriak irekiaz, gaurko egoerari dagokion eran gizatasunez erantzunaz... Baña ez nadilla sermoikeritan asi.

Prolemak larriak direlarik, arazoak konpondu-gaitzak izanagatik, ez gaitzela tristetu, eta lanari ekin daiogun. Gure alaitasun eta humorea ez dugu alde batera utzi bear. Izan ere langileak, nekazariak ere berdin, festa eta jaialdietan gure nortasuna erakusten dugu. Aurten, esate baterako, San Isidro egunean gertutakoak, Arozamena eta Gorrotzategin bertso saioak, Anaitasunezko Bazkaria, t. a. bikainak izan dire benetan.

Bein da berriro, «madalenetan» sartu geranez, jai egun zoriontsuak opa dizkizutet guztiori. Gero, berriro lanari ekiteko, atsedean hartu eta indarberitzea ondo etorriko zaigu ta.

Xenpelar